

Gaixotasun arraroak dituztenei zuzendutako terapia genikoko tratamenduen aldeko lehen *Arantzazu Jaialdia* sortu da

Fundación Columbus fundazioak bultzatuta, ekimenaren aurreneko ekitaldia irailaren 8tik 10era izango da, eta erreferente bilakatzea du helburu zientziak zein kulturak adierazpenik gorena izan dezaten.

22/09/01. Donostia. Fundación Columbus fundazioak *Arantzazu Jaialdiaren* lehen ekitaldia antolatu du irailaren 8tik 10era Euskadiko zenbait tokitan. Gaixotasun arraroak dituzten adin txikikoei Terapia Aurreratuak, gaur-gaurkoz egon badaudenak, eskura jartzeko dirua biltzea du xede ongintzako ekimen honek.

Fundazioak sustatu ohi dituen kontzertu berezietatik haratago joan nahi izan du, eta lehen aldiz jaialdi hau antolatu du ohiko ongintzako egitasmo handi eta errotua bihurtzeko asmoz. Honenbestez, asmoa da kultura eta giza sustrai sakonak dituen ohiturazko hitzordu bilakatzea, eta musikak, garapen nahiz gizarte-kohesiorako tresna gisa, egin dezakeenaren erakustaldi eta inspirazio izatea. Horregatik aukeratu du Fundazioak Euskadin egitea eta baita Arantzazuko Santutegia izatea ere jaialdiko lehen edizioiko gune nagusia. Izan ere, inguruneak ezaugarri bereziak, kultur tradizioa eta lurraldearen sentsibiltate soziala ditu.

Jaialdiaren lehen ekitaldian punta-puntako taldeak zein artistak izango dira, besteak beste, Euskadiko Orkestra; **Bilboko Abesbatza**; **Rocío Pérez** sopranoa; **Damián del Castillo** baritonoa; eta **Ángel Luis Quintana** Espainiako Orkestra Nazionalako txelo bakarlaria. Guztiak Ramón Tebar maisuaren zuzendaritzapean arituko dira. Jaialdiak, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du.

Inaugurazio-kontzertua irailaren 8an izango da, **Donostian, arratsaldeko 19:00etan, Orkestraren egoitzan** —Miramon Pasealekua, 124—. Kontzertu bera errepikatuko da **Arantzazuko Santutegiko Basilikako** jaialdiaren amaieran, **irailaren 10ean, larunbata, 19:00etan**. Bi emankizunetan joko den programako pieza nagusia Fauréren Réquiema izango da, Madinaren **Aita gurea**, Ravelen **Pavane**, Brucheren **Kol Nidrei** eta Fauréren **Pavanerekin** osatua izango dena.

Irailaren 9an, ostirala, 19:30ean, Bilboko Elkarte Filarmonikoaren egoitzan —Portuko Markesaren kalea, 2—, **kontzertu lirikoa** izango da Rocío Pérez sopranoa, Damián del Castillo baritonoa eta pianoa jotzen izango den Tebar maisuaren eskutik. Operako eta zarzuelako ariak zein duoak interpretatuko dituzte.

PRENTSA OHARRA

Irailaren 10ean, 12:00etan, Arantzazuko Santutegiko Kriptan, Angel Luis Quintanak II Soldato txeloaz lagunduta (1800. urtean egindako Guadagnini instrumentua da, Fundación Columbus fundazioarena dena) J. S. Bachen **biolontxelorako 2. eta 3. Suiteak** interpretatuko ditu.

«Arantzazu bilaketa-gunea da, eta, aldi berean, munduari zein gehien behar dutenei irekita dagoen topagunea. Hori dela eta, gaixotasun arraroak dituzten adin txikikoen aldeko Arantzazu Jaialdia, goi-mailako musika programa batean oinarritzen dena, Basilikan egiteak ilusio berezia egiten digu», adierazi du Juan Ignacio Larrea Arantzazuko Santutegiko bikarioak.

Lau kontzertuetarako sarrerak eskuragarri daude 10 eurotik aurrera fundazioaren webgunean: <https://fundacioncolumbus.org/evento/i-festival-arantzazu/>. Hortaz gain, gune ezberdinen leihatiletan ere eros daitezke. Edukiera mugatua denez, sarrerak aldeztatik online eskuratzea komeni da.

Halaber, dohaintzak egin nahi dituztenentzat **“0. LERROA”** ere dago, eta ekarpenak ondorengo kontuen bidez egin daitezke:

Ibercaja

ES15 2085 9366 1303 3033 9645

CaixaBank

ES31 2100 4553 1302 0019 8855

Sortu zenetik eta hona, Fundación Columbus fundazioak punta-puntako nazioarteko kontzertuak antolatzen ditu dirua bilduta bere misioa gauzatzeko. Washington DC-n, Moskun, Valentzian, Bartzelonan, Madrilan, Sevillan, Santiago de Compostelan, Donostian, Ipar Carolinan eta beste hainbat tokitan emanaldi paregabeetaz gozatzeko aukera izan dute kontzertuak zenbait leku esanguratsutan eskainita.

Ekimen horiei esker, gaixotasun arraroak dituzten dozenaka haur Terapia Aurreratuekin artatu dira, eta bizitza erabat aldatu zaie.

Fundación Columbus-i buruz

Fundación Columbus Fundazioa Valentzian sortu zen 2017. urtean tratamendu onkologikoetarako eta jatorri monogenikoko gaixotasun arraroetarako berrikuntza medikoak garatzeko eta eskuragarri jartzeko, eta haurrengan arreta berezia jarrita. 2019an Fundazioak ateak ireki zituen Estatu Batuetan, *Columbus Children's Foundation*-en bidez.

Fundazioak kultura du aliatu gisa bere jarduera zabaltzeko eta dirua biltzen laguntzeko. Ezaugarri bereziak dituzten ongintzazko kontzertuak antolatzen ditu kulturaren eta musikaren agertoki handietan, eta horietan guztietan goi-mailako artistek parte hartzen dute. Egitasmo horiek adin txikikoei zuzendutako

PRENTSA OHARRA

zentro espezializatuetako osasun tratamenduak eta beraien familiei laguntza emateko finantzaketa ahalbidetzen dute. Fundazioak 2021eko martxoan Objetivo10 programa jarri zuen abian hamar urtean hamar gaixotasun arraro sendatzeko xedez.

Informazio gehiago eskuratu nahiko bazenu, sar zaitez **fundacioncolumbus.org** atarira.

Informazio gehiago eta elkarrizketak:

Natalia Reyes

natalia@sg-branding.com